

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Alemaniarren eskutik

MEMORIAREN GALERARI galga eman eta zahartzeari eusteko erromero mediterranea, *Rosmarinus officinalis*, bezain ona bada ginkgo txinatarra, *Ginkgo biloba*. Eta ez dira horiek bere trebetasun bakarrak!

Ezagutzen den landare zaharrenetakoa da ginkgoa. Duela 300-250 milioi urteko Permiar garaiko fosilekin lotzen da. Argi ezagutzen ez diren arazoia tarteko, Txinako bailara batzuetan bizirik aurkitzen da; ikerketa genetikoan arabera landatutakoak diren zuhaitzetan. Era berean Japonian, Korean eta Txinan bertan monasterioetan ere landatu izan dute.

Aspaldiko zuhaitz hau, monasterioetan kanpoan jarria eta aldareak eta ospakizunetarako tresnak bere zurez eginak, gurtua da. Horrezaz gain, bitxikeriaz josia dago. Dioikoa da: batzuk arrak eta beste batzuk emeak dira. Fruituak duen azido butirikoak kaka usain izugarria eranstean dio. Taxuz erasokodion gaitz edo izurriterik ez du pairatzen. Kutsadurari buru egiten dio eta hirietan asko landatzen da. Egurra jaten dion intsekturik ez eta altsumak eta aireko sustriak emanez indarberritzeko duen ahalmena dela-eta luze bizi ohi da, milaka urte alegia. 2.500 urte baino gehiago duen aleren bat ba omen da...


Engelbert Kaempfer alemana izan zen, 1691n, Japonian Nagasakiko monasterio budistan, zuhaitz hau ikusi eta deskribatu zuen mendebaldeko lehen zientzialaria. Ginkgoa fosiletan besterik bizi ez zen landarea zela zioten garaiko lankide guztien iritzia

aurre egin behar izan zion. Erosi eta ekarritako haziak Utrechto go Landaretegia erein zituzten, eta handik sortutako zuhaitzak oraindik bizirik dira.

Zientzialari eta landarezale izanagatik haragirako joera ere bazuen beste alemaniar batek, Goethek, ginkgoa eta bitan banatzen den bere hostoa aitzakia hartuta maitaleari eskaini zion 1815ean idatzi zuen poema sonatua. Zerbaiten esperantzan, noski...

Ondotxo gerora itxaropenaren zuhaitza deitu zaio, Hiroshimako bonbak txikizio nuklearra eragin zuen gunean bizirik iraun zuen bakarra ginkgoa izan omen zen eta...

Alemaniarren eskutik Nagasakitik Hiroshimara...



Goetheren *Ginkgo biloba* poemaren kopia, ginkgo hostoak itsatsita.



Kaltering

Edonolako kalitateko jakiak edonondik merke zuhurrean ekarri eta prantatu ondoren ikastetxe, lantegi, ospitale eta, gero eta gehiago, herri-bazkari edo afari edo edozein ospakizun-otordu banatzen duen enpresa. Ingurumenean, nekazaritzan, paisaian eta jendarte

eragiten dituen kalteengatik nik Kaltering deitzen diet. Kalitate eskaseko elikadurara sortzen duen loturagatik beste batzuk Katering diote. Batzuen bizkar lepoa loditzen dutenak gogora ekarriz Katering esaten dienik ere bada. Kalte, Kate eta Kartera, ingelesez noski!

Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com <http://www.alkartasunausurbil.com/>

